

Trantsizio ekosoziala eta etorkizun posibleak

Agertokiak sortzen parte hartzeko
proposamena

Alboan Fundaziotik eta REAS-Euskaditik elkarrizketa- eta hausnarketa-gune honetara gonbidatu nahi zaituztegu. 2040. urteari begira Euskadin, bidezko trantsizio ekosozialeko guneak taldean sortzeko. Espazio bat sustatu nahi dugu, gizarteko aktoreek parte hartzeko narrazioak eraikitzen, taldean pentsatzeko, aldaketa-elementuak identifikatzeko, eta agertoki desiragarri eta posibleak eraikitzeko.

Prozesuak hiru tailer izango ditu; lehenengo tailerlean kolektiboka deituko dizuegu, aldaketa-faktoreak eta lehentasunezko eragileak identifikatzeko. Bigarren tailerra, tailer mistoa izango da, eta talde guztiak gonbidatuko ditugu etorkizuneko agertokiak eraikitzen hasteko. Eta hirugarren tailerlean, bertan ere talde guztiak gonbidaturik, emaitzak egiaztatu eta parte hartzeko prozesuari amaiera emango diogu.

Tailer guztiak Arrupe Etxean (P. Lojendio 2 - Bilbo) dira, hauek dira proposatzen dizkizuegun datak(*):

1. TAILERRA:

Apirilaren 18an, 16:30etatik 19:30etara: Emakumeak eta GKEak

Apirilaren 25ean, 16:30etatik 19:30etara: Gazteak eta Euskadin bizi diren pertsona migratzaileak

Maiatzaren 2an, 16:30etatik 19:30etara: Hezkuntza-erakundeak eta ETEak

2. TAILERRA:

Maiatzaren 9an, 16:30etatik 19:30etara: Talde guztiak

3. TAILERRA:

Maiatzaren 30ean, 16:30etatik 19:30etara: Talde guztiak

* Parte hartzeko interesa baduzu eta zure kolektiboari proposatutako datan ezin dabuzu etorri, beste tailerretako batera etor zaitezke.
Informazio gehiago: m.guzman@alboan.org



REAS
EUSKADI
ekonomia alternatibo
eta solidarioa

 **alboan**
ONG · JESUITA · FUNDAZIOA